

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2020ko MAIATZAREN 23ko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren : Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Corinne Othatcegy, Jean-Paul Eyherachar, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe, Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Jean-Paul Alaman, Amaia Beyrie, Michel Duthilleul, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Christian Devèze jaunak ongi etorria egin di biltzarkide guziei, kirol gelan bildurik aholkularitza zientifikoa eman osasun gomendioen errespetatzeko, bereziki maskararen eramatea eta orain jende orok ezagutzen dituen babes neurriak ere bete ditugu gelara sartzean.

1 – Herri Biltzarraren instalatzea.

Robert Poulou jaunak denei agurra egin die honako hitzekin: « agur deneri ».

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2122-8 artikulua irakurri du : « Herri Biltzarkide zaharrena izan behar da Auzapeza hautatzeko saioko presidentea ».

Ohore bat da beraz beretzat -tamalez- biltzarkide zaharrena izatea.

Auzapezaren izendapena beti momentu garrantzitsua izan da herri batean. Saio hau duintasunarena eta denen errespetuarena izatea nahi du, eta agian isiltasuna izanen da nagusi bozketa denboran.

Ohituraren arabera, zaharrenak herriko biziaren ikusmolde filosofikoa eman ohi du. Egoera bereziarengatik herri biltzar hau kirol gela batean egiten da. Hori dela-eta, kirolarien eta hautetsien arteko paralelismoa egin du. Menturaz, hasiko den agintaldirako keinua izan liteke, hots kirolean betetzen diren arauak betetzearena.

Lehenik « fairplay » delakoa, kirolarien artean bezala herriaren bizian elkarren arteko errespetuan eginen dela, besteak beste oposizioaren errespetuan.

Bestalde, kirolari amaturrak gehienetan eskuzabalak dira. Gutariko bakoitzak eramanen duen herriko biziarekin batera, gure interes partikularrak alde batera utziko ditugu, eta herriarentzat lan egingen.

Azkenik, kirolarekiko alderaketarekin segituz, jarraikortasuna behar da, entrenamenduetara joan behar da. Herri hautetsiak gomitatzen ditu, beraz, kirolarien irudira, batzordeetan eta biltzarretan presente izatera.

Bukatzeko, Kanbo Txikitoren herri baita, bi hitz egingen ditu euskaraz. Beharbada gure eginbideak Ipar Euskal Herriko bi pilota talderen izenak segi lezazke: Baigorriko « Zaharrer segi », hots zaharrek utzi ondarea errespetatzea. Baina, kontserbatismoaren hatzaparretan ez erortzeko, Ainhoako pilota taldearen izena ere segitu beharko dugu: « Beti Aintzina ».

2020ko martxoaren 15eko hauteskudeen emaitzak oroitarazi ditu:

Erroldatuak: 4 759

Hautesleak: 2 274, hots %47,78ko partehartzea

Bozka kopurua: 2 191

Xuri edo baliogabeak: 83

Zerrenden emaitzak:

- « Nahi Dugun Herria – La commune que nous voulons » Argitxu HIRIART-URRUTY buru: 1 029 boz, hots bozen %46,96 (7 biltzarkide).
- « Unis pour Cambo – Elgarrekin Kanborentzat » Christian DEVEZE buru: 1 162 boz, hots bozen %53,04 (22 biltzarkide)

Herri biltzarkideak izendatu ditu:

Christian DEVEZE
Eliane AIZPURU
Jean-Noël MAGIS
Yolande HUGUENARD
Didier IRASTORZA
Marie ARISTIZABAL
Robert POULOU
Christiane HARGAIN-DESPERIES
Vincent GOYTINO
Véronique CADEPOND-LARRONDE
Peio ETCHELEKU
Corinne OTHATCEGUY
Jean-Paul EYHERACHAR
Nicole AMESTOY
Jean-Jacques LASSUS
Isabelle AYERBE
Jean-François LACOSTA
Maud GASTIGARD
Roger BARBIER
Bernadette REMEAU
Sébastien CARRE
Marie-Carmen GONZALEZ
Argitxu HIRIART-URRUTY
Philippe BACARDATZ
Nathalie AICAGUERRE
Jean-Paul ALAMAN
Amaia BEYRIE
Michel DUTHILLEUL
Lilian HIRIGOYEN

Kanboko herri biltzar berria instalatua dela adierazi du.

2 – Saioko idazkariaren izendapena.

Robert Poulou jaunak Frantziako LKKO-ko L. 2121-15 artikulua irakurri du : « Saio bakoitzaren hasieran, Herri Biltzarrak saiorako idazkari bat edo gehiago izendatu behar ditu bere kideen artean» eta funtzio horretarako hautagaiak nor diren galdetu du.

Hautagai bakarra izan da: Jean-Paul Eyherachar. Saioko idazkari izendatua da.

3 – Auzapezaren hautatzea.

Robert Poulou jaunak Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2122-10, 2122-4 eta 2122-7 artikulua irakurri eta Herri Biltzarrari galdegin dio bi laguntzaile izendatzea. Gehiengoko eta oposizioko kide bana proposatzen du.

Laguntzaile izendatu dira: Véronique Cadepond-Larronde eta Nathalie Aïçaguerre.

Robert Poulou jaunak galdegin nor aurkezten den auzapez izateko.

Argitxu Hiriart-Urruty eta Christian Devèze aurkeztu dira auzapez postua betetzeko.

Bozketa egin da, orri xuri eta gutunazalekin, behar bezala hautestontzian sarturik, idazkariak kideak banan-banan deiturik.

Bozketaren emaitzak:

Bozkatzaileak:	29
Boz baliogabeak:	0
Bozka kopurua:	29
Gehiengo absolutua:	15

Zerrenden emaitzak:

- Devèze Christian: 22 boz
- Hiriart-Urruty Argitxu: 7 boz

Christian Devèze jauna izendatua da Kanboko auzapez.

Robert Poulou jaunak zorionak eman eta agintaldi ona opa dio. Ezteientzat bezala: « Jour pluvieux - mariage heureux et samedi pluvieux – mandat heureux » (Egun euritsu - ezteia zorionsu eta larunbat euritsu - agintaldi zorionsu). Auzapezaren xingola eta Kanboko makila eman dizkio.

Christian Devèze jaunak biltzarkide guztiak eskertu ditu eta Robert Poulou bere eskuhartzeagatik. Kontent da biltzarrera sartu baita, eta uste du bere umotasunak, esperientziak eta kultura zabalak heldu diren eztabaidetan aberasgarri izanen direla. Makilari dagokionez, espero du bere aitzineko auzapez goresgarrien urratsetan gidatuko duela. Horiek erran eta saioaren presidentzia hartu du.

4 – Orde kopuruaren finkatzea.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2122-2 artikulua arabera - auzapezak horren irakurketa egin du- auzapezak biltzarkideei proposatu die zortzi orde izendatzea.

Aho batez onartua.

5 – Ordeen hautatzea.

Auzapezak Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2122-7-2 kodea irakurri eta bost minutuko epea eman die biltzarkideei auzapez orde funtzioetarako hautagaitza zerrendak emateko.

Bi hautagai zerrenda aurkeztu dira:

- Argitxu Hiriart-Urruty anderearen « Nahi Dugun Herria » zerrenda, honela osaturik: Argitxu Hiriart-Urruty – Philippe Bacardatz – Nathalie Aïçaguerre – Jean-Paul Alaman – Amaia Beyrie – Michel Duthilleul – Lilian Hirigoyen.
- Eliane Aizpuru anderearen « Unis pour Cambo » gehiengoko zerrenda, honela osaturik: Eliane Aizpuru – Jean-Noël Magis – Yolande Huguenard – Didier Irastorza – Marie Aristizabal – Robert Poulou – Christiane Hargain-Despéries – Vincent Goytino.

Auzapezaren hautatzeko bezala, gutun azal eta horri xuri baten bidez egin da bozketa. Hona emaitza:

Bozkatzaileak:	29
Boz baliogabeak:	0
Bozka kopurua:	29
Gehiengo absolutua:	15

Zerrenden emaitzak:

- Hiriart-Urruty anderea buru duen zerrenda: 7 voix
- Aizpuru anderea buru duen zerrenda: 22 voix

Orde izendatu dira eta segidan funtzioan sartu Eliane Aizpuru anderearen « Unis pour Cambo » zerrendako hautagaiak:

1. ordea : Eliane Aizpuru
2. ordea: Jean-Noël Magis
3. ordea: Yolande Huguenard
4. ordea: Didier Irastorza
5. ordea: Marie Aristizabal
6. ordea: Robert Poulou
7. ordea: Christiane Hargain-Despéries
8. ordea: Vincent Goytino

Frantziako LKKOko L. 2122-12 artikulua arabera, Auzapezak jakitera ematen du bozketa horiek 24 oren barne publiko egin behar direla herriko etxeko atarian eta kirol gelan afitxaturik.

Ondotik, Auzapezak Herri Biltzarkideen herronka finkatzen duen taula aurkeztu du (LKKOko L. 2121-1 artikulua). Auzapezaren ondotik eta hurrenez hurren, herronkan sartzen dira ordeak eta gero herri kontseilariak. Herri kontseilarien herronka honela erabakitzen da: boz kopurua eta berdintasuna

denean zaharrenak du lehentasuna. Taularen kopia bat Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Prefetari igorriko zaio.

6– Lurralde hautetsien karta.

Auzapezak Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.1111-1-1 artikulua irakurri eta hautetsi bakoitzari lurralde hautetsien karta bana eman die.

Solasgaiak agorturik, oposizioari hitza hartzeko parada eman dio.

Hiriart-Urruty andereak du hitza hartu:

« Egun on deneri,

Auzapez jauna,

Herri kontseilari andere eta jaunak,

Kanboar andere eta jaunak,

Kazetari jaunak,

Lehenik, konfiantza erakutsi diguten kanboarrei esker minak eman nahi dizkiet!

Ondotik, Nahi Dugun Herria zerrendako talde miresgarria ere eskertu nahi dut. Azaroan hasi ginen biltzen, gure programa proposatu, eztabaidatu eta osatzeko.

%47! Kasik bozken erdia!

Hor dugu azken sei urteetan eskasten dugun Pantxorekin egin lanaren eta kanpaina azkar eta aberats honetan biztanleekin egin ditugun topaketen uzta.

Kanboarren arrangurak, zailtasunak eta nahiak entzun ditugu.

Eta aldi berean Nahi Dugun Herria taldeko kideontzat ardura handia da, ez baitiegu biztanleei atsekaberik eman behar, eta horretan lan eginen dugu, iragan agintaldian bezala, buru belarri.

Nathalie, Amaia, Philippe eta nik agintaldien esperientzia badugu, alta zorte onekoa da gure taldea Lilian, Jean-Paul eta Michel bezalako jendeekin indartzea, lan alorrean nola elkarte munduan esperientzia handia baitute. Egiazki sinesten dut gure taldearen indarrean eta dinamismoan.

Gure baitan dugun gizatasuna defendatzen segituko dugu, baita euskararen sustapena eta gure LURRAREN geriza.

Haatik, hauteskunderen bihamunean, COVID 19arengatik itxialdian sartu gaituzte.

Sekulan ezagutu ez den osasun krisialdi horren ondotik, ekonomia krisialdia jinen da, eta gizarte eta ingurumena ere kaltetuak izanen dira. Eta Kanbo terma hiriak ere pairatuko ditu krisi horiek.

Eritasuna, lanaren galtzea, saltokien hestea, etxebizitza atxemateko zailtasun handiagoak, elikadura, gizarteratzea eta eskola bere osotasunean. Krisialdiak ondorio lazgarriak izanen ditu jadanik zailtasunak dituztenetzat. Horregatik elkartasun, elkarte eta herri sare guztiak piztu behar ditugu behardunei gure laguntza eskaintzeko.

Lehen egunetik borrokan ari direnak ere eskertu behar ditugu: osasungintzako langileak, zahar egoitzetakoak, elikadura saltoki eta supermerkatuetakoak, etxe laguntzaileak, lurralde erakundeetako langileak, irakasleak, banaketariak eta laborariak.

Agian behar bezala eskertuko ditugu, pandemia hasieran hitz eman genien bezala, jende oro dardarka ari zenean, beren engaiamendua estimatzen zuenean.

Orain, elkarrekin osasun krisialdi horren zergatiaz gogoetatu behar dugu.

Zientzialariek aspaldian jo du alarma klima beroketari buruz. Oihanen suntsiketak, laborantza lurren murrizteak, urbanizazio kontrol-gabeak eta bio aniztasunaren pobretzeak eragiten duten

ingurumen alerta. COVID 19a horren ondorio zuzena da.

Guk, hautetsiok, norik bere ardura eremuan, badugu erantzukizun handia erabakitzen ditugun politiketan: mugikortasunak, hondakinen kudeaketa, etxebizitza xuhurrak, hurbileko elikadura zirkuitoak, hots urbanizazioa bere osotasunean.

Nahi Dugun Herria taldeko kideok, aspaldidanik badugu ingurumenarekiko kezka hori, aitzineko gehiengoaren hautu batzuk gogor salatu genituen kontzientziazte egoki baten arrunt kontra joaten zirelako.

Pandemia hau munduko biztanleriari abisu bat ematen ari zaio. Mugarri izanen da. Ezingo dugu gertatu dena begiratu gabe egon.

Elkarrekin gogoetatu behar dugu.

Agian gehiengoak gurekin lan egiteko eta eztabaidatzeko prest izanen da, ezen demokrazia eztabaidarekin egiten baita. Eta ez bakarrik gu zazpiekin, baina kanboar guztiekin.

Entzuten dugu, jendeak orokorrean, ez duela hautetsienganako konfiantzarik. Lot gaitezen aldaketari. Sor ditzagun auzo batzordeak, proiektu handientzat beren iritzia bil ditzagun, beren proposamenak entzun ditzagun.

Hitza ematen badiegu, segur baliatuko dutela.

Gure goitik beherako gobernantza modua aldatu behar dugu, hemendik berritu, beste hainbat lekutan egiten den bezala.

Interes amankomuna zerbitzeko hautatu gaituzte, lurralde hautetsiaren kartak dioen bezala.

Lan eskerga dugu egiteko, ezinbestez elkarren artean gogoetatuz.

Guzti horren jakitun gara eta errotik lotu gatzazkio lanari.

Segituko dugu gure lana hartu ildo beretik eta gure engaiamendua osoa izanen da; bai jendeeri ekarriko diegun elkartasuna azkartzeko, bai ere gure hizkuntza eta gure lurra babesteko.

Milesker »

Ondotik, Auzapezak honako adierazpena egin du:

« Lankide, Andere, Jaun eta adiskide maiteak,

Ni hautatu izana bihotzez eskertzen dizuet, baita niganako erakutsi duzuen konfiantza ere.

Herri Biltzarraren indarrean ezartzea gibelatzera behartu gaituen testuinguru bereziak, denoi aukera eman digu ongi neurtzeko zein garrantzitsuak diren elkartasun loturak, hauek gabe holako egoera bati aurre egitea hagitzez zailagoa izanen baitzen.

Beste behin, adibiderik ez dugu eskas. Azken berrogeita hamar egunotan Kanbok hiri jarrera izan du, eta hori azpimarratu nahi nuen. Halako gertakarien aurrean, hauteskunde bizia pausan eman daiteke, ezen garrantzitsuena beste nonbait delako. Denek analisisia bera egiten dugu eta harro egon gaitzke Kanbok ez baitu zatiketa irudirik erakutsi garai horretan.

Herri Biltzar buru izendatu nauzue datozen sei urteetarako, eta zin egiten dizuet arduraz jokatuko dudala. Gehiengoko eta oposizioko hautetsiak segur egon daitezke Auzapez gisa beti arretaz entzunen ditudala, ordezkatzan dituzten sentsibilitate guztiekin. Bistan da Kanbo eta kanboarren interes

gorenaren aldekoak iruditzen zaizkidan erabakiak hartuko ditudala, baina halaber, zuetariko bakoitzak emanen dizkidan aldeko edo kontrako argudioak balantzan ezarriko ditut.

Ez naiz autokrata baten gisara ariko.

Bizi pribatuan eta profesionalean egin ohi dudan bezala, Kanbo norabide berri batean sartu aitzin gure politika publikoaren ondorioak ahal bezain ongi neurtuko ditut.

Ez ditut erabakiak arinkeriaz hartzen, aldaratearen arabera edo okerrago, ezain presio taldek eraginik. Ipar orratz bakarra interes orokorra dut.

Hemen, denak moderaziozko tradizio politikoaren oinordekoak gara, muturrak baztertuz. Badakit gauza horietan bat egiten dugula eta horri esker garrantzitsuenean adostuko garela.

Ene aitzineko hitzartzeari segituz, besterik gabe errango nuke baldintza oso berezietan egin diren hauteskunde horiek hiriaren bi ikuspegi agerian eman dituztela, baina gehiengoak ni buru nintzen zerrendaren alde mintzatu dela. Orain, gehiengo horri dagokio ardurak osoki betetzea, zilegitasun demokratiko osoarekin. Dagoeneko, garaia dugu ekintza herritarren alde egiteko, eta dudarik gabe sei urtez ekintza horiek eramanen dituztenak laguntzeko. Zuzenbide estatu baten indarrak gehiengoak erdiestean datza, eta zein izan ere zenbakiak, gehiengoari agintzeko dagozkion eskubideak onartzea.

Badakit herri biltzarretan nola batzordeetan elkar ikusiko dugula, espiritu honetan, honela laburbildurik: zatozte herriko etxera, gure borondatea herriaren eta herritarren zerbitzuko izatea baita.

Borondatea halakoa denez, agian agintaldi hau lanean eta elkartasunean beteko dugu Kanbo eta kanboarrentzako nahikeria handiarekin, bereziki gaur egun bizi dugun pandemiatik aterako garenean.

Milesker zuen konfiantzagatik eta gora Kanbo ».

Auzapezak saio 11ak eta 10etan hetsi du.